

Izar-leherketa mota berria: mikronobak



Mikronoba baten irudikapen artistikoa.
ARG.: ESO/M. Kornmesser, L. Calçada.

Lehendik ezagunak dira noba eta supernoba fenomenoak. Bietan, izar baten argitasunaren bat-bateko handitzea gertatzen da. Orain, baieztatu dute mikronobak ere badirela: izar nano zurien azalean gertatzen diren leherketak, ordu batzuetako iraupenekoak.

TESS satelitearen eta VLT teleskopioaren laguntzarekin, astronomoek baieztatu dute izar nano zuri batzuetan, sistema bitar batean daudenean, leherketa txikiak gertatzen direla poloetan.

Nobetan gertatzen den bezala, sistema bitarretan, izar batek besteari hidrogenoa har diezaioke. Hidrogenoa, nano zurira heltzean, berotu eta fusionatu egiten da, eta helioa sortzen da, modu leherkorrean. Horren ondorioz, noba batean, izarraren azalera osoa argitzen da, asteetan. Mikronobetan, leherketak txikiagoak dira —hala ere, 20.000.000 bilioi kilogramo erretzera irits daitezke—. Nano zuri horiek eremu magnetiko indartsua dute, eta hidrogenoa poloetara bideratzen da. Han gertatzen da fusioa.

Iraupen laburrekoak direnez, ez dira errazak hautematen, baina astronomoek uste dute nahiko ohikoak direla. Hortaz, horrelakoak bilatzeko asmoa dute, haien ezaugarriak hobeto ezagutzeko helburuz. ●

Neandertalen galeraren une jakin bateko erretratua Aranbaltzan

Arkeologoek neandertalen galera ikertzen jarraitzen dute. Badakite duela 50.000-40.000 urte gertatu zen prozesu hori konplexua izan zela, baina ez da erraza xehetasunetara jaitea. Alabaina, horixe lortu du Joseba Riosen taldeak, Aranbaltza II aztarnategian (Barrika, Bizkaia).

Aranbaltza II berezia da, Paleolitoko Kantauriko aztarnategi gehienak kobazuloetan baitaude, eta Aranbaltza, berriz, aire librean. Beraz, aparteko interesa du, neandertalen bizimoduari buruzko bestelako informazioa ematen baitu. Aranbaltza II-k, gainera, inguruan ohikoa den Erdi Paleolitoko harrizko tresneriarekin (Musteriarra) zerikusirik ez duen beste kultura bateko tresnak ditu, Chatelperroniar kulturakoak, hain zuzen. Azterketa kronologikoak erakutsi duenez, gutxienez mila urteko eten bat dago bi kulturen artean.



Arkeologoak, Aranbaltza II aztarnategian lanean.
ARG.: Joseba Rios Garaizar *et al.*

[PLOS ONE](#) aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak, eta aldaketa teknologikoaren azalpena ere eman dute: proposatu dutenez, Aranbaltzan zeuden neandertal-taldeak desagertu egin ziren, eta Akitaniatik etorritako taldeek hartu zuten ingurua gero. Neandertalen galera ulertzeko ikuspegia osatzen du, beraz, Aranbaltzako ikerketak. ●